



ETXEBIZITZEN ALOKAIRUA ORDAINTZEKO GAZTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKO ARAUTZAILEAK

1. Xedea.

Diru-laguntza hauen helburua 18 eta 35 urte bitarteko Aretxabaletako gazteei etxebizitzen alokairua ordaintzen laguntzea da, emantzipazio-prozesuan laguntzeko eta etxebizitzen alokairua sustatzeko.

2. Bete beharreko baldintzak.

2.1. Alokairuari dagozkion baldintzak.

Alokatutako etxebizitzak eskatzaileen ohiko bizilekua izan beharko du, eta alokairu-kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izan beharko du; aldi horretan, gainera, oinarri hauetan zehaztutako baldintza guztiak bete beharko dira.

Etxebizitzaren alokairuaren prezioa, gehienez, 650 eurokoa izango da, eranskinak barne. Garajea, komunitate-gastuak eta administrazio-gastuak alokairutik eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuetatik kanpo geratuko dira, baita kontribuzio edo zerga gisa sor daitezkeenak ere, baita dagokion kontratuan berariaz sartzen badira ere.

Alokairuaren hileko kuotari 30 euroko zenbateko finkoa kenduko zaio aurreko paragrafoan deskribatutako garaje- edo komunitate-gastuengatik, baldin eta alokairu-kontratuan sartuta badaude eta gastu bakoitzaren hileko kostua berariaz justifikatzen ez bada.

2.2. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Laguntza horiek banaka edo bizikidetzaren unitate gisa eska daitezke.

Diru-laguntza horiei dagokienez, honako hauek hartuko dira bizikidetzaren unitateak: bikotea, ezkondua edo izatezko bikote gisa erregistratuta dauden pertsonak, eta, hala badagokio, haien kargura dauden seme-alabak, bai eta guraso bakarreko unitateak ere, guraso bakarrak osatuak, eta haien kargura dauden seme-alabak. Era berean, erantzukizunpeko adierazpen bidez hala adierazten dutenak ere kontuan hartuko dira (adingabeak ardurapean izan edo ez), bai adin nagusikoak biak, bai adin txikikoak ardurapean dituen pertsona bakarra.

Baldintzak:

a) Adina: 18 eta 35 urte bitartean izatea, bizikidetzaren unitatearekin bizi diren mendeko adingabeen kasuan izan ezik

b) Erroldatzea: azken bi urteak etenik gabe, edo Aretxabaletan 10 urtez erroldatuta egon izana.

c) Ez eskatzaileak ez bizikidetzaren unitateko kideek ezin izango dute izan beren jabetzako etxebizitzarik. Herentzian edo dohaintzan lortutako etxebizitza baten titularkide gisa lortutako etxebizitza baten titularkide den kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasunaren ehunekoia ez bada etxebizitzaren partaidetzaren katastro-balioaren % 50 baino handiagoa eta 75.000€ baino gehiagokoa.



Hala ere, etxebizitza baten % 50etik gorako jabeek eskatu ahal izango dute laguntza, salbuespenezko egoera batengatik etxebizitza hori legez erabili ezin badute.

d) Alokairuko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek bertan errolatu beharko dute, eta datu hori diru-laguntza jaso aurretik egiaztatuko da. Halaber, dagoeneko etxebizitzan bizi ez diren pertsonak errolatuta badaude, jabeak erroldan baja ematea eskatu beharko du.

Errolatu gabeko beste pertsona bat ere ezin izango da etxebizitzan benetan bizi, eta Udalak behar diren ikerketak egin ahal izango ditu hori egiaztatzeko.

e) Diru-sarrerak gehienez ere:

- 28.000 euro gordin urtean, banakako eskaera bada.
- 44.000 euro gordin urtean, eskaera bizikidetzaren unitate batena bada.

Onuradunek ezingo dute urtean 18.000 euro gordin baino gutxiagoko diru-sarrerarik izan, ezta 28.000 euro gordin baino gehiagoko diru-sarrerarik ere, eskaera indibiduala bada.

Kanpoan geratzen dira 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonak, Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programako laguntza ekonomikoak jasotzeko aukera dutelako. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eskatu arren Jaurlaritzak eman ez dizkien pertsonak sartuko dira. Horretarako, eskabidearen egiaztatzea aurkeztu beharko da.

Urteko diru-sarrera gordintzat hartzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarri orokorraren batura, bai eta eskaerak aurkezteko unean indarrean dagoen ekitaldi fiskaleko beste edozein diru-sarrera ez-kontributibo ere.

Nolanahi ere, etxebizitza berean bizi diren pertsonak ezin izango dituzte laguntzak jaso, baldin eta horien guztien guztizko diru-sarreraren batura urtean 44.000 euro gordinetik gorakoa bada.

f) Diru-sarreraren osaerari dagokionez, mugaeguneratutako azken ekitaldi fiskaleko kapital-errentetatik datozen etekin gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 600 eurotik gorakoa izan.

g) Etxebizitza partekatzen duten pertsona guztiak izan daitezke onuradun, alokairu-kontratuaren titularkideak badira eta gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu horretan, eskabideak banaka aurkeztuko dira, eta alokairuaren prezioa hainbanatu egingo da. Gelen azpierrementamendua ezinezkoa izango da

h) Laguntzaren onuradun guztiek eguneratuta egon beharko dute tasak, zehapenak eta udal-zergak ordaintzerakoan. Baita Gipuzkoako Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren gainerako zerga-betebeharrak ere.

i) Ezin izango da familia-loturarik egon diru-laguntzaren onuradunen eta errentariaren artean, odolkidetasunezko edo ahaidetasunezko bigarren mailara arte..

Nolanahi ere, onuradun izateko, artikuluko honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era artekoetan eta Aretxabaletako Udalaren diru-laguntzak emateko ordenantzetan.

- Ezingo dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.



- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera debeku horrekin zigortutako pertsona fisikoek ezin izango dute parte hartu dagokion zehapenak ezartzen duen aldian.

j) Indarrean dagoen etxebizitzaren errentamendu-kontratuak ezingo du 12 hilabete baino gutxiagoko iraupena izan.

k) Onuradun bat bera ere ez izatea, aldi berean, alokairu kontzeptuko beste inolako laguntzaren onuradun, diruz lagundu daitekeen aldi osoan.

2.3. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

Alokatutako etxebizitzek Aretxabaletako udalerrian egon beharko dute, eta bizigarritasun-baimena izan beharko dute. Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte

- a) Erabilera egoeran dagoen sukaldea, behar bezala hornitutako elikadura elektrikoko edo gasezko iturria duena.
- b) Bainu-gela dutzarekin edo bainuontziarekin.
- c) Ur beroaren sistema, erabiltzeko moduan, bainugelarako eta sukalderako zerbitzuarekin.
- d) 220 voltetako instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.
- e) Edateko uraren hornidura.
- f) Saneamendua, sare orokorrera isurita.
- g) Kaleko aireztapena.

3. Bazterketak.

Diru-laguntzaren eremutik kanpo geratuko dira honako egoera hauetakoren batean dauden etxebizitzak:

- a) Babes publikoko etxebizitzak.
- b) Bizigune programaren barruan alokatutako etxebizitzak.
- c) Gela-alokairuak.
- d) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
- e) Hilean 650 €-tik gorako alokairu-etxebizitzak.
- f) Urtebetetik beherako iraupena duten alokairu-kontratuak.
- g) Erostea aukera ematen duten alokairu-kontratuak

4. Aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntza hauek eskatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskabide-inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NANaren edo bizileku-txartelaren fotokopia. Familia-liburuaren fotokopia, adingabeak badaude, edo seme-alabatasuna egiaztatzeko.
- c) Etxebizitza alokatzeko kontratuaren kopia, indarrean eta diruz lagundu daitekeen epearen barruan.
- d) Banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- e) Laguntzaren onuradun guztiek estatu osoan etxebizitza jabetzan ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria, laguntza eman baino 15 egun lehenago, gehienez, jabetza-erregistroak emana.



Etxebizitza baten titularkideak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Herentziaren kasuan, herentzia onartzea eta partaidetza-eskritura.
- Dohaintzaren kasuan, dohaintza-eskritura.

f) Bizikidetzaren unitateko kide guztien urteko diru-sarreraren egiaztagiria.

-Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana.

-Azken 12 hilabeteetako diru-sarreraren egiaztagiria.

PFEZ aitortzera behartuta dagoenak:

- Mugaeguneratutako azken ekitaldi fiskaleko PFEZaren aitortzearen fotokopia, jatorrizkoarekin batera, alderatzeko.
- Gainera, kotizazio gabeko prestazioak jasoz gero, horien ziurtagiria.

PFEZ aitortzera behartuta ez dagoenak:

- Kasu guztietan, Foru Ogasunak emandako ziurtagiria, PFEZren aitortzea aurkeztea derrigorrezkoa ez dela egiaztatzen duena.
- Kasu guztietan, kapital-errentak justifikatzeko, eskatzailearen kontu guztien banku-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzko agiria, ekitaldi horri dagokiona, eta enpresa edo alde enplegatzaileak emana

Pentsiodunek edo beka, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituzten pertsonen (mota guztietako gizarte-prestazioak barne), ekitaldi horri dagokion laguntza horien ziurtagiria.

g) Administrazioarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

Gizarte Segurantzari dagokionez, zinpeko aitortzea onartuko da, norberaren konturako langileen kasuan izan ezik.

h) Beste diru-sarrera batzuk daudela (zenbatekoa adierazita) eta/edo beste erakunde batzuei diru-laguntza eskatu zaiela egiaztatzen duen zinpeko aitortzea; besteak beste:

- Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO).
- Aretxabaletako gizarte-larrialdietarako laguntza

Udalak adierazpen horiek egiaztatuko ditu bere esku dituen datuen bidez.

Eskatzaileak berriazko baimena eman beharko die Aretxabaletako udal-zerbitzuei, diru-laguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6. artikulua. Errolda-datuak udalak berak jasoko ditu zuzenean.

5. Eskaerak aurkezteko epea.

Diru-laguntza hau eskatu ahal izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik urriaren 30a arte.

Deialdia argitaratzen denetik BI HILABETE baino epe laburragoan aurkezten bada eskaera, diru-laguntza atzeraeraginezko ondorioekin onartu ahal izango da, baldin eta data horretarako alokairu-kontratua sinatuta bazegoen.



Bi hilabeteko epe hori amaitu ondoren, eskaera aurkezten den hilabetetik aurrera lortu ahal izango da laguntza (atzeraeraginik gabe).

6. Akatsak zuzentzea.

Eskabidean edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioan akatsen bat badago edo akatsen bat osatu gabe badago, 10 eguneko epea emango da, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Epe hori igarotakoan antzemandako akatsak zuzentzen ez badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da eta espedientea artxibatuko da.

7. Izapidez arduratuko den administrazio-unitatea

Eskaerak Gazteria administrazio-unitateak izapidetuko ditu.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, diru-sarrerak hartuko dira kontuan, taula honen arabera:

ESKATZAILEA	Diru-sarrera gordinak	alokairuaren %	Gehieneko dirulaguntza
	25.000,01-28.000	%20	100 €
	22.000,01-25.000	%30	150 €
	20.000,01-22.000	%40	200 €
	Diru-sarrerak < 20.000	%50	250 €
Bizikidetza unitatea	39.000,01-44.000	%20	100 €
	34.000,01-39.000	%30	150 €
	29.000,01-34.000	%40	200 €
	Diru-sarrerak < 29.000	%50	250 €

Diru-laguntza gehienez hamabi (12) hilabeterako izango da; hurrengo urtean beste deialdi bat egiten bada, beste eskabide bat egin beharko da laguntza horiek jasotzen jarraitu ahal izateko. Pertsona bakoitzak gehienez ere bost (5) urtez jaso ahal izango ditu laguntzak, banaka edo bizikidetza-unitate batean.

9. Justifikazio agiriak.

Diru-laguntza onartu ondoren, dagozkion zenbatekoak kobratzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Alokairuaren hileko ordainsarien ordainagiriak.
- Diru-laguntza honen azken ordainketa egiteko, oinarri hauetako 4. klausularen "g" atalean adierazten diren dokumentu eguneratuak aurkeztu beharko dira.

Diru-laguntza eskatu zuenetik baldintzak betetzeari dagokionez aldaketarik egon bada, aldaketa horiei dagokien dokumentazioa aurkeztu beharko du (oinarri hauetako 2. klausularen 2.2. puntuan zehazten dira baldintzak).

Dokumentazio berria aztertu ondoren:

- Laguntzaren zenbatekoa berriz kalkulatu da, hala badagokio.



- Onuradunak baldintzak betetzeari uzten badio, aldaketa gertatu den hilabeteari dagokion azken hilekoa ordainduta likidatuko da diru-laguntza.
- Diru-laguntzaren azken hilabetean, azken 12 hilabeteetako diru-sarrereren egiaztagiriak bidaliko dira, eta Udalak diru-laguntzaren zenbatekoari dagokion zatia kobratzeko eskubidea izango du, baldin eta kontratuan zehar onuradunaren baldintzak aldatu badira, betiere baldintza horiek diru-laguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez badituzte.

10. Dirulaguntza ordaintzea.

Diru-laguntza hileroko ordainduko da, ordainagiriak aurkeztu ondoren.

11. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak bateraezinak izango dira helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Salbuespen gisa, gizarte-bazterketako eta premia larriko egoerak arintzeko banakako laguntzak jasotzen dituztenek eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzen dutenek jaso ahal izango dituzte laguntza horiek.

Bi kasuetan, alokairurako diru-laguntza horiek osagarriak izango dira, oinarri hauetako 8. klausularen arabera laguntzaren gehieneko zenbatekora iritsi arte.

12. Aurrekontua.

Programa honen bidez deitutako laguntzetarako aurrekontua 30.000 eurokoa da, eta "Etxebizitza alokatzeko gazteentzako laguntza-programa" partidaren kargura finantzatuko da.

Aurrekontu hori ez bada nahikoa eskabide guztiei erantzuteko, handitu egingo da, udal-aurrekontua gauzatzeko oinarrietan kredituak aldatzeko ezarritako mekanismoen bidez

13. Klausula gehigarria.

Oinarri espezifiko hauetan aurreikusi ez den guztirako, Aretxabaletako Udalak 2022rako egin duen diru-laguntzen deialdiaren oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatuko da.

Era berean, Diru-laguntzen Udal Ordenantza (Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra) eta arlo horretan indarrean dagoen araudi aplikagarria aplikatuko dira.



BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A JÓVENES PARA EL PAGO DE ALQUILER DE VIVIENDA

1. Objeto.

El objeto de estas subvenciones es ayudar a pagar el alquiler de vivienda a jóvenes de Aretxabaleta de edad comprendida entre 18 y 35 años, para ayudarles en su proceso de emancipación, y promover el alquiler de vivienda.

2. Requisitos a cumplir.

2.1. Requisitos relativos al alquiler.

La vivienda alquilada deberá ser la residencia habitual de las personas solicitantes y el contrato de alquiler deberá tener al menos una duración de 12 meses; en dicho periodo de tiempo, además, deberán mantenerse todas las condiciones especificadas en las presentes bases.

El precio del alquiler de la vivienda, como máximo, será de 650 euros, incluidos los anexos. Quedarán fuera del alquiler y de los conceptos subvencionables el garaje, los gastos de comunidad y los de administración, así como los que puedan generarse en concepto de contribución o impuestos, incluso en el caso de que fueran incluidos expresamente en el contrato correspondiente.

De la cuota mensual del alquiler se restará un importe fijo de 30 euros por los gastos de garaje o comunidad descritos en el párrafo anterior, si estuviesen incluidos en el contrato de alquiler y si no se presentase justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

2.2. Requisitos a cumplir por las personas solicitantes.

Estas ayudas pueden solicitarse de forma individual o como unidad de convivencia.

En lo referente a estas subvenciones, se entenderá por unidad de convivencia una pareja, las personas unidas en matrimonio o como pareja de hecho registrada, y en su caso, los hijos e hijas a su cargo, así como las unidades monoparentales formadas por un único padre o madre y los hijos e hijas a su cargo. De la misma manera serán consideradas también los que así lo manifiesten mediante declaración responsable. (con o sin menores a su cargo), mayores de edad ambos, o bien una única persona con menores de edad a su cargo.

Requisitos:

- a) Edad: tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, excepción hecha de los menores dependientes que cohabiten con la unidad convivencial.
- b) Empadronamiento: los dos últimos años de forma ininterrumpida, o haber estado empadronada en Aretxabaleta durante 10 años.

c) Ni la persona solicitante ni ninguno de los miembros de la unidad de convivencia podrán tener vivienda de su propiedad. Excepto en los casos que sea cotitular de una vivienda obtenida cotitular de una vivienda obtenida en herencia o donación, siempre que el porcentaje de cotitularidad no supere el 50% del valor catastral de la participación de la vivienda no sea superior a 75.000€.



No obstante, podrán solicitar la ayuda las personas que sean propietarias de una vivienda en más del 50%, si no pudieran utilizar legalmente dicha vivienda por una situación excepcional.

d) Todas las personas que residan en la vivienda de alquiler deberán empadronarse en ella y este dato se verificará antes de percibir la subvención. Asimismo, en caso de que estuviesen empadronadas personas que ya no residen en la vivienda, el propietario o propietaria deberá solicitar su baja en el padrón.

Tampoco podrá estar residiendo en la vivienda ninguna otra persona no empadronada, para cuya comprobación el Ayuntamiento podrá realizar las oportunas averiguaciones.

e) Los ingresos podrán ser como máximo:

- 28.000 euros brutos al año, si es una solicitud individual.
- 44.000 euros brutos al año, si la solicitud es de una unidad de convivencia.

Las personas beneficiarias no podrán disponer de ingresos inferiores a 18.000 euros brutos anuales ni superiores a 28.000 euros brutos anuales cuando se trate de una solicitud individual. Se excluyen a las personas con ingresos no superiores a 18.000 euros porque tienen opción de acceder a las ayudas económicas del programa Gaztelagun que concede el Gobierno Vasco.

No obstante, se incluirán aquellas personas que habiendo pedido las ayudas del Gobierno Vasco éste no les haya concedido. Para ello será necesario presentar el justificante de la solicitud.

Se considera ingresos brutos anuales el sumatorio de la base imponible General del impuesto sobre la renta de las personas físicas, así como cualquier otro ingreso no contributivo del ejercicio fiscal vigente en el momento de presentación de las solicitudes.

En cualquier caso, no podrán optar a las ayudas, las personas que convivan en una misma vivienda, cuando la suma de los ingresos totales de todas ellas sea superior a 44.000 euros brutos anuales.

f) Respecto a la composición de los ingresos, no podrá ser superior a 600 euros anuales la cuantía de los rendimientos brutos procedentes de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido.

g) Pueden ser beneficiarias todas las personas que compartan la vivienda, si son cotitulares del contrato de alquiler y si cumplen todos los demás requisitos. En este caso, las solicitudes se presentarán individualmente y el precio del alquiler se prorrateará. No será posible el subarriendo de habitaciones.

h) Todas las personas beneficiarias de la ayuda deberán estar al día en el pago de tasas, sanciones e impuestos municipales. Así como del resto de las obligaciones tributarias de la Hacienda Foral de Gipuzkoa y de seguridad social.

i) No podrá haber vínculo familiar entre las personas beneficiarias de la subvención y la parte arrendataria, hasta segundo grado de consanguinidad o parentesco.

En todo caso, para ser consideradas beneficiarias, deberán acreditar el cumplimiento de los requisitos establecidos en el art. 13 de la Ley General 38/2003 de Subvenciones y en los arts 18 al 29 del Real Decreto 887/2006, y en las ordenanzas reguladoras de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Aretxabaleta.



- No podrán obtener la condición de beneficiaria aquellas personas que incurran en alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 y 3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

- No podrán concurrir durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las personas físicas sancionadas con esta prohibición en virtud de la ley para igualdad de Mujeres y Hombres.

j) El contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente, no podrá tener una duración inferior a 12 meses.

k) Que ninguna persona beneficiaria, sea a su vez beneficiaria de ninguna otra ayuda en concepto de alquiler, durante todo el periodo subvencionable.

2.3. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.

Las viviendas alquiladas deberán estar ubicadas en el municipio de Aretxabaleta y disponer de la correspondiente autorización de habitabilidad. Además, habrán de cumplir los siguientes requisitos:

- a) Cocina en estado de uso, con fuente de alimentación eléctrica o de gas adecuadamente equipada.
- b) Cuarto de baño con ducha o bañera.
- c) Sistema de agua caliente en estado de uso, con servicio al cuarto de baño y a la cocina.
- d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios, con su boletín correspondiente.
- e) Suministro de agua potable.
- f) Saneamiento con vertido a la red general.
- g) Ventilación a la calle.

3. Exclusiones.

Quedarán fuera del ámbito de subvención las viviendas que se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias:

- a) Viviendas de protección pública.
- b) Viviendas alquiladas dentro del programa Bizigune.
- c) Alquileres de habitaciones.
- d) Locales utilizados como vivienda.
- e) Viviendas de alquiler que superen el importe de 650€ al mes
- f) Contratos de alquiler de duración inferior a un año.
- g) contratos de alquiler con opción de compra



4. Documentación a presentar.

Para solicitar estas ayudas, deberá presentarse la siguiente documentación:

- a) Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado y firmado.
- b) Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia de cada una de las personas demandantes de la ayuda.
Fotocopia del Libro de Familia en caso de haber menores de edad, o para acreditar la filiación.
- c) Copia del contrato de alquiler de la vivienda, vigente y dentro del plazo subvencionable.
- d) Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta bancaria.
- e) Certificado de no disponer de vivienda en propiedad a nivel estatal de todas las personas beneficiarias de la ayuda, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la concesión de la ayuda.
Quien sea cotitular de una vivienda, deberá presentar la siguiente documentación:
 - En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de participación.
 - En el caso de donación, escritura de donación.
- f) Documentos acreditativos de los ingresos anuales de todos los miembros de la unidad de convivencia:
 - Certificado de la vida laboral, expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.
 - Justificantes de los ingresos de los últimos 12 meses.
 - Quien tenga la obligación de declarar el IRPF:
 - Fotocopia, junto al original para su cotejo, de la declaración del IRPF del último ejercicio fiscal vencido.
 - En el caso de percibir, además, prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.
 - Quien no tenga obligación de declarar el IRPF:
 - En todos los casos, Certificado expedido por la Hacienda Foral que acredite la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF.
 - En todos los casos, las rentas de capital se justificarán mediante certificado bancario de todas las cuentas de la persona solicitante.
 - En el caso de personas trabajadoras por cuenta ajena, documento sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente a dicho ejercicio y emitido por la empresa o parte empleadora.
 - En el caso de pensionistas o personas que perciban becas, prestaciones o subsidios (incluido todo tipo de prestación social), certificado de dichas ayudas correspondiente a dicho ejercicio.
- g) Acreditación de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Administración y con la Seguridad Social.
A los efectos de la Seguridad Social se aceptará la declaración jurada, excepto en el caso de personas trabajadoras por cuenta propia.
- h) Declaración jurada de la existencia de otros ingresos (indicando el importe) y/o de haber solicitado subvención a otras instituciones; entre otros:
 - Prestación Complementaria de Vivienda (PCV).
 - Ayuda de emergencia social de Aretxabaleta



El ayuntamiento comprobará estas declaraciones a través de los datos que obran en su poder. La persona solicitante deberá dar autorización expresa a los servicios municipales de Aretxabaleta para acreditar que reúne todos los requisitos necesarios para ser beneficiaria de las ayudas, a tenor de lo establecido en el art. 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal. Los datos de empadronamiento serán recabados directamente por el ayuntamiento.

5. Plazo de presentación de solicitudes.

Se podrá solicitar esta subvención desde el día en que se publique la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el día 30 de octubre.

Si se presenta la solicitud en un plazo inferior a DOS MESES a partir de la publicación de dicha convocatoria, se podrá aprobar la subvención con efecto retroactivo, si para esa fecha el contrato de alquiler estaba ya suscrito.

Una vez vencido dicho plazo de dos meses, se podrá conseguir la ayuda desde el mes en que se presenta la solicitud (sin efecto retroactivo).

6. Corrección de errores.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña tenga algún error o sea incompleta, se otorgará un plazo de 10 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.

Si transcurrido dicho plazo no se subsanan los defectos detectados, se considerará desistida la solicitud y se archivará el expediente.

6. Unidad administrativa encargada de la tramitación.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.

8. Importe de las subvenciones.

Para concretar el importe de la subvención, se tendrán en cuenta los ingresos, de conformidad con la siguiente tabla:

SOLICITANTE	Ingresos brutos	% del alquiler	Subvención máxima
Individual	25.000,01-28.000	20%	100 €
	22.000,01-25.000	30%	150 €
	20.000,01-22.000	40%	200 €
	Ingresos<20.000	50%	250 €
Unidad de convivencia	39.000,01-44.000	20%	100 €
	34.000,01-39.000	30%	150 €
	29.000,01-34.000	40%	200 €
	Ingresos<29.000	50%	250 €

La subvención será para un periodo máximo de doce (12) meses; si el próximo año se realiza una nueva convocatoria, deberá realizarse una nueva solicitud para poder seguir optando a estas ayudas.

Cada persona podrá recibir ayudas como máximo durante un periodo de cinco (5) años, ya sea como individual o como parte de una unidad de convivencia.



9. Documentación justificativa.

Una vez aprobada la subvención, para cobrar las cantidades correspondientes, deberá presentarse la siguiente documentación:

- a) Justificantes de los pagos de las mensualidades del alquiler.
- b) Para el abono del último pago de esta subvención, deberán presentarse los documentos actualizados que se indican en el apartado "g" de la cláusula 4 de estas bases. Si desde que solicitó la subvención hubiera habido variaciones respecto al cumplimiento de los requisitos, deberá presentar la documentación correspondiente a dichas variaciones (Los requisitos se detallan en el punto 2.2. de la cláusula 2 de estas bases).
Una vez analizada la nueva documentación:

- Se recalculará el importe de la ayuda, si procede.
- Si la persona beneficiaria dejara de cumplir los requisitos, se liquidará la subvención con el abono de la última mensualidad, la correspondiente al mes en que se ha producido la variación.
- El último mes de la subvención se enviarán los justificantes de los ingresos de los últimos 12 meses y el Ayuntamiento se reserva el derecho cobrar la parte correspondiente de la cuantía de la subvención, en caso de que a lo largo del contrato hubieran cambiado las condiciones del beneficiario, siempre y cuando éstas no cumplan los requisitos exigidos para la obtención de la subvención.

10. Pago de la subvención.

El pago de la subvención se efectuará mensualmente, una vez presentados los correspondientes justificantes de pago.

11. Compatibilidad con otras subvenciones.

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases serán incompatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Como excepción, podrán recibir estas ayudas quienes perciban ayudas individuales para paliar situaciones de exclusión social y extrema necesidad y quienes perciban la Prestación Complementaria de Vivienda.

En ambos casos, estas subvenciones para alquiler tendrán carácter complementario hasta llegar al importe máximo de ayuda según la cláusula 8 de estas bases.

12. Presupuesto.

El presupuesto para las ayudas convocadas a través de este programa es de 30.000 euros y será financiado con cargo a la partida Programa de ayudas a jóvenes para alquiler de vivienda".

En el caso de que dicho presupuesto no sea suficiente para dar respuesta a todas las solicitudes, será ampliado a través de los mecanismos establecidos en las bases de ejecución del presupuesto municipal para la modificación de créditos.



Aretxabaletako
Udala

13. Cláusula adicional.

En todo lo no previsto en estas bases específicas, será de aplicación lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria de subvenciones del Ayuntamiento de Aretxabaleta para el año 2022.

Asimismo, será de aplicación la Ordenanza Municipal de Subvenciones, Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás normativa vigente aplicable a esta materia.